

# EIBARKO ELKARBIZITZA ETA ANIZTASUN PLANA

2018 - 2022



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa





# AURKIBIDEA

<b>1.</b> Sarrera	<b>3</b>
<b>2.</b> Planeko Ekintzak	<b>5</b>





# SARRERA

2018-2022 epealdirako III. Elkarbizitza eta Aniztasun Planak jarraipena eman nahi dio berdintasunaren eta udalerriko kulturen arteko bizikidetzaren alde eta bazterkeriaren aurka Eibarko Udalak egindako lanari. Atzerritarrak iristea eta bertan bizitzen jartzea aspaldiko kontua da eta, beraz, ez da fenomeno berria. Horregatik, egungo migrazio-errealitateak eskatzen du harrerarekin lotutako alderdiez gain, elkarbizitzarekin eta gizarte kohesioarekin lotutakoez ere arduratzea.

Eibarren 2000 urtean 319 ziren atzerrian jaiotakoak; hamazazpi urte beranduago, aldiz, 2.686. Horien etorrerari esker orekatu egin da, neurri batean, nazionalitate espainola duen biztanleriaren pixkanakako jaitsiera. Bestalde, datuek erakusten dute Eibar ez dela beste euskal udalerrri batzuekiko oso ezberdina, aurreko mendearen amaieratik gertatu diren migrazio-prozesuei dagokienez.

2009 urtera arte handitu egin zen jatorriko atzerritarreko biztanleria, baina 2010etik eta 2014ra bitartean egiaztatu ahal izan da krisi ekonomikoak eragina izan zuela bai etorritakoen kopuruan, bai kolektiboaren osieran. Behin ekonomia atzeraldia igarota, etorreren igoera txiki bat igarri da eta horrekin batera atzerritarren enplegarritasuna ere errekueratzen ari da gutxika-gutxika.

Hori guztia dela eta, migrazio-fenomenoan gertatu diren aldaketa hauek eraman dute udalerrria eta bertako herritarra, lehentasuna atzerritarrei harrera egitea zen unetik beste une batera, non fokoa jarri behar den, alde batetik, pertsona horien gizarteratzean eta laneratzean eta, bestetik, aniztasunaren kudeaketan. Aniztasuna kudeatzea ezinbestekoa da, zeren eta gaur egun Eibarko gizarteak 2000 urtean baino are anitzagoa baita. Orain gurekin batera gure udalerrian bizi dira: atzerriko nazionalitatea duten atzerritarrak; Espainiako nazionalitatea duten atzerritar jatorriko pertsonak, jatorri nazionala eta nazionalitate espainola edo atzerritarra dutenak; Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainiako beste erkidego batean jaiotakoak izan arren arbaso atzerritarrak dutenak, eta atzerriko nazionalitatea, etab. Horrek aniztasun handia dugula esan nahi du: kultura, hizkuntza, ohitura, erlijio, balio, sinesmen, mundu-ikuskerak anitzak. Aniztasuna ez da kontu iragankorra, hemen izango dugu aurrerantzean ere eta gure komunitatearen fisionomia eta osaera erreala aldatu du. Eta kontzientziatu beharra daukagu gerora are anitzagoa ere izango dela.

Testuinguru honetan garrantzia hartzen du tratu berdintasunaren eta arraza edo jatorriagatik pertsonak ez baztertzearen aldeko borroka, elkarbizitza hobetzeko ardatz eta gida gisa. Etorkizunean gizarte justuagoa, kohesionatuagoa eta desberdintasun sozial gutxiagokoa lortu nahi badugu, horixe da gure erronka.



# PLANEKO EKINTZAK

Atal honetan labur-labur aipatuko ditugu 2018-2022 Elkarbizitza eta Aniztasun Planak proposatzen dituen 25 ekintzak, bereizten ditugun 3 arlo hauetan multzokatuta:

- 1. Tratu instituzionalean berdintasuna lortzeko ekintzak:** ekintza hauek Eibarko Udalarri zuzendutakoak dira, udalerrian bizi diren pertsona guztiekiko tratu berdintasuna lideratu eta susta dezan, bere legedi, araudi, barne zein kanpo zirkularretan.
- 2. Tratu estrukturalen berdintasuna lortzeko ekintzak:** ekintza hauek ez dute bazterkeriaren borrokarekin lotutako helburu espezifikorik, baizik eta gizarteratze prozesu orokorretan sartzen dira eta udalerraren eta euskal gizartearen berezko giza egituraren eragina izan nahi dute, Eibarko biztanleria osatzen duten herritar anitzen artean aukera eta tratu berdintasuna bilatuz.
- 3. Pertsonen arteko tratuan berdintasuna lortzeko ekintzak:** jatorri atzerritarreko pertsonenganako aurreiritzi eta estereotipo negatibo eta faltsuei aurre egiteko udaletik sustatu nahi diren ekintzak biltzen dira multzo honetan. Hauen bidez jarrera aldaketaren alderdi kognitiboak, alderdi afektiboak eta portaerazko alderdiak landu nahi dira.

25 ekintzetatik, 5 dimentsio instituzionalekin daude lotuta, 15 estrukturalarekin eta 5 pertsonen arteko dimentsioarekin.

## 1. DIMENTSION INSTITUZIONALAK

- 1.1.** Komunikazio-politika koherente bat sustatzea, immigrazioaren, elkarbizitzaren eta aniztasunaren arloan
- 1.2.** Eibarko Udaleko pertsona teknikoari eta udalbatzari edo talde politikoei beren eginkizuneari aritzeko formazioa ematea aniztasunean, tratu-berdintasunean eta estereotipo eta aurreiritzien kontrako borrokan
- 1.3.** Sailen arteko lankidetzak eta koordinazioak modulatzeko Eibarko Udalaren barruan
- 1.4.** Elkarbizitza eta Aniztasun Planaren sozializazio- eta ezagutza-prozesuak sustatzea, Eibarko Udala osatzen duten sailen artean
- 1.5.** Oroipen-deklarazio instituzionalak egitea eta zabaltzea, herritarrei haietara batzeko gonbita eginez

## 2. EGITURAREN DIMENTSIONAK

- 2.1.** Immigratzaileei euskarara hurbiltzeko ikastaroak eskaintzea, hala nola AISA programa
- 2.2.** Gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza-bikoteen boluntario linguistikoak sustatzea
- 2.3.** Hitzaldiak eta topaketak egitea, Eibarko eta euskal gizarteko usadio eta ohituretan oinarrituak (ohiturak, kultur ereduak, kodeak, konpromisoak...)
- 2.4.** Enpleguaren eta formazioaren arduradunak diren entitateekin sarean lan egitea, migratzaileen insertzio soziolaboralerako prozesuak ezartzeko
- 2.5.** Herrian Immigrazio Mahai bat sortzea, arlo horretan parte hartzen duten eragile guztien parte hartzea eta koordinazioa bermatuko duena
- 2.6.** Immigratzaileentzako baliabideen gida eta informazio interesgarria aldi berean behin eguneratzea eta webgunean sartzeko
- 2.7.** Herriko beste entitate batzuekin lankidetzak-sareak indartzea
- 2.8.** Immigrazio-arloko proiektuetan genero-ikuspegia sartzeko, eta kultur aniztasuna indartzea genero-ikuspegia sartuta daukaten proiektuetan
- 2.9.** Heziketa-komunitateari (irakasleak, administrariak, Guraso elkarteak) sentsibilizazio-formazioa ematea kultur aniztasunaren eta elkarbizitzaren alorrean
- 2.10.** Ikasle etorkinen euskararen ezagutza indartzea, eskolaz kanpoko ordutegian laguntza-saioak emanez
- 2.11.** Elkarbizitza eta Aniztasun Plana sozializatzeko prozesuak ezartzeko herritarren eta entitate sozialen artean



- 2.12.** Atzerritar jatorriko emakumeek parte har dezaten espazio egokiak sortzea, bai eta kulturen arteko topaguneak ere, kultur eta/edo hizkuntza berezitasunak kontuan hartuz
- 2.13.** Gaztelaniazko irakaskuntzako dispositiboak sortzea bultzatzea, etorkinen integrazioarako hizkuntzaren premiaren inguruko eskariei erantzuteko
- 2.14.** Migrazioen arloko entitateei eta laguntzako ei zuzendutako elkarteak indartzeko eta parte hartzeko programa bultzatzea eta sendotzea
- 2.15.** Kulturarteko Mahaiko entitateen artean Planaren ildoarekin batera datozen jarduerak egitea sustatzea; Udalak lagunduak eta/edo diruz lagunduak

### **3. PERTSONEN ARTEKO DIMENTSIOA**

- 3.1.** Bizilagunak programak herrian duen inpaktua antolatzea eta zabaltzea
- 3.2.** Beste sail/zerbitzu/entitate batzuekin batera herritarrei zuzendutako ekintzak antolatzea, atzerriko immigrazioaren aurrean dauden estereotipo negatibo eta faltsuen aurka egiteko
- 3.3.** Zurrumurruen aurkako estrategiarekin eta Elkarbizitzaren Planarekin bat datozen pertsona ezagunen atxikipena lortzea (ahal dela herriarekin lotura duten pertsonak)
- 3.4.** Herriko komunikabideetan herrian finkatuta dauden etorkinen bizi-ibilbideak ikusgai jartzea
- 3.5.** Egun dauden kulturen arteko topaguneak sortzea baloratzea

1. DIMENSIO INSTITUZIONALA	
<b>EKINTZA</b>	<b>1.1. Komunikazio-politika koherente bat sustatzea, immigrazioaren, elkarbizitzaren eta aniztasunaren arloan</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Prensa-arduraduna, programen ardura duen pertsonal teknikoa, agendan eta webgunean argitaratzearen arduradun teknikoa
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Pentsatu behar da zer elementu hartu behar diren kontuan komunikazioaren arloan, koherenteak izateko elkarbizitzaren aldeko apustuarekin, tratu-berdintasunarekin eta diskriminazioaren aurkako borrokarekin (bai udal mailan, bai udal sailek zabalkundea egiteko materiala sortzean)</p> <p>Dokumentu bat egitea, lan-ildoak, lehentasunak eta arduradunak jasoz</p> <p>Sortzen doan dokumentazioaren jarraipena</p>
<b>HELBURUA</b>	Komunikazio-politika kontzienteki erabiltzea diskriminazioaren aurka eta elkarbizitzaren alde
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	<p>Prensa- eta komunikazio-arduradunen parte hartzea</p> <p>Komunikazio-politika jasotzen duen dokumentua</p>
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Komunikazio-politikaren dokumentuan jasotako jarduerak (zenbat egin diren)
<b>ARDURADUNA</b>	<p>Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa</p> <p>Prensa-arduraduna</p>
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>

1. DIMENSIO INSTITUZIONALA	
<b>EKINTZA</b>	<b>1.2. Eibarko Udaleko pertsonal teknikoari eta udalbatzari edo talde politikoei beren eginkizunean aritzeko formazioa ematea aniztasunean, tratu-berdintasunean eta estereotipo eta aurreiritzien kontrako borrokan</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarko Udaleko pertsonal teknikoa eta gobernu-taldea eta oposizioa
<b>DESKRIBAPENA</b>	Agintaldiko formazio-jardunaldi bat egitea, bi edo hiru ordukoa, gobernu-taldeari eta udalbatzari edo udaleko talde politikoei zuzendua Urtero, formazio-saioak egitea, laur ordu ingurukoak, Eibarko udaleko pertsonal teknikoari zuzenduak. Sail ezberdinetako langilez osatutako taldeak eratuko lirateke, espazio berean profil profesional heterogeneoak lortzeko xedez Kasu bietan, edukiak kultur aniztasuna, tratu-berdintasuna eta immigrazioarekin lotutako estereotipo negatiboen aurkako borroka lantzerantz zuzenduta daude
<b>HELBURUA</b>	Udaleko pertsonal teknikoa eta gorputz politikoa sentsibilizatzea udalaren migrazio-errealitateari buruz Tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren aldeko udal apustua sozializatzea Eibarko udal langileen artean Tresnak eskaintzea haien eguneroko lanean komunikazioa hobetzeko, immigrazioarekin eta kultur aniztasunarekin lotutako gaietan Atzerritar jatorriko pertsonenganako estereotipo faltsu eta negatiboen aurka borroka egitea, elkarbizitza oztopatzen baitute
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Pertsonal teknikoa: · Udaleko sail guztien ordezkaritza eta parte hartzea lortzea Gobernu-taldea eta oposizioa: · Urtean gutxienez formazio-saio bat egitea aurtengo agintaldian
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Pertsonal teknikoa: · Formazioan parte hartu duten pertsonen kopurua · Planaren hasieran intranet bidezko galdeketa bat egitea eta Plana amaitzean berriz ere errepikatzea Laurtekoa Gobernu-taldea eta oposizioa: · Formazioan parte hartu duten pertsonen kopurua · Gobernu-taldearen % 80ko presentzia egon dadila eta oposizioko alderdi bakoitzetik ordezkaritza bat · Alderdi politikoen diskurtsoen azterketa ( <i>pressclipping</i> -aren analisia). Laurtekoa
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	· 2018 · 2019 · 2020 · 2021 · 2022

1. DIMENSIO INSTITUZIONALA	
<b>EKINTZA</b>	<b>1.3. Sailen arteko lankidetzeta eta koordinazioa modulatzeta Eibarko Udalaren barruan</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarko Udaleko pertsonal teknikoa
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Komunikazio eta lankidetzeta-bide arinagoak sortzea, Eibarko Udaleko immigrazio sailaren lana eta kultur aniztasuna presente dagoen beste sail batzuen lana garatzeko</p> <p>Elkarrekin topo egiteko espazioak eta baterako ekintza-protokoloak sortzeak eta mantentzeak aukera ematen digu immigrazio sailaren funtzioetan ager daitezkeen kasuen ikuspegi zabalago bat izateko eta zeharkakotasuna sartzeko kultur aniztasunaren politiken kudeaketan</p>
<b>HELBURUA</b>	Sailen arteko lankidetzeta- eta koordinazio-bideak sustatzea
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	<p>Dokumentuak -deribazio-fitxa teknikoak</p> <p>Koordinazio-bilerak</p>
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Zenbat ekintza landu diren zeharkakotasunez
<b>ARDURADUNA</b>	<p>Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa</p> <p>Eragindako sail bakoitzetik teknikari bat</p>
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>

1. DIMENSIO INSTITUZIONALA	
<b>EKINTZA</b>	<b>1.4. Elkarbizitza eta Aniztasun Planaren sozializazio-eta ezagutza-prozesuak sustatzea, Eibarko Udala osatzen duten sailen artean</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarko Udaleko pertsonal teknikoa
<b>DESKRIBAPENA</b>	Plana aurkeztea Eibarko Udaleko sail bakoitzari <ul style="list-style-type: none"> <li>· Elkarbizitza eta Aniztasun Plana sozializatzea</li> <li>· Toki-korporazioak egiten duen lanaren berri izatea</li> <li>· Sail guztien konpromisoa txertatzea haiekin/berekin zerikusia duten ekintzak garatzean</li> </ul>
<b>HELBURUA</b>	Elkarbizitzaren, berdintasunaren eta diskriminazio ezaren alde, Eibarko Udalak duen eginkizuna ikusgai jartzea
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Zenbat aldiz aurkeztu den Plana
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Zenbat aldiz aurkeztu den Plana Zenbat jende bertaratu den
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>

1. DIMENTSION INSTITUZIONALAK	
<b>EKINTZA</b>	<b>1.5. Oroipen-deklarazio instituzionalak egitea eta zabaltzea, herritarrei haietara batzeko gonbita eginez</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarko Udaleko pertsonal teknikoa Alkatetza Eibarko herritarrak
<b>DESKRIBAPENA</b>	Elkarbizitzaren eta diskriminazio ezaren aldeko deklarazio instituzionalekin, Eibarko Udalak jarrera argia hartzen du herrian dauden kulturen arteko errespetuarekiko  Iritzi-preskribatzaile den aldetik, alkatetzak garbi eduki behar du zer garrantzia daukan arlo horretan deklarazioak egiteak, bizilagunen arteko komunikazioa eta elkarbizitza hobetzeko  Adostuko da Kulturartekotasun Mahaiko entitateekin batera deklarazioak egitea, erreferentziak eginez herriaren osaeran auzotar guztiek (kanpotik etorriak, hemen jaiotakoak, jatorri ezberdinekoak) batera egin duten ahaleginari eta lan kolektiboari norbanakoaren aurrerapenaren alde
<b>HELBURUA</b>	Eibarko Udalean diskurtsoak lideratzea elkarbizitzaren eta diskriminazio ezaren alde
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Udaleko Osoko Bilkurari aurkeztutako deklarazio-kopurua
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Eibarko Osoko Bilkurak onartutako deklarazio-kopurua
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	· 2018 · 2019 · 2020 · 2021 · 2022

<b>2. EGITURAREN DIMENTSIOA</b>	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.1. Immigratzaileei euskarara hurbiltzeko ikastaroak eskaintzea, hala nola AISA programa</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarren bizi diren migratzaileak
<b>DESKRIBAPENA</b>	Atzerritar jatorriko biztanleei euskarara gerturatzeko ikastaroak eskaintzea. Azken helburua da immigratzaileak hizkuntzara hurbiltzea, egunerokotasunean oinarritako kontzeptuak ikasten eta eskuratzen joateko xedez  Horretarako, udalerriko euskara-zentroen eskaintza eskuragarri izango da, jarduera hori eibartarrek duten bitarteko bereberkin jaso dezaten
<b>HELBURUA</b>	Euskararen irakaskuntza erraztea immigratzaileak udalerrian erabat integratzeko
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Baliabide-gidaren bidez eta RR.SSen bidez euskarazko ikastaroen eskaintzaren zabalkundea egitea  Eskainitako ikastaro-kopurua
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Zenbat pertsona inskribatu diren ikastaroetan  Zenbat pertsonak amaitu dituzten ikastaroak
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa  Euskararen pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	· 2018 · 2019 · 2020 · 2021 · 2022

2. EGITURAREN DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.2. Gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza-bikoteen boluntario linguistikoak sustatzea</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarren bizi diren migratzaileak Udalerriko herritarrak
<b>DESKRIBAPENA</b>	Bikote linguistikoak sortzen dira hizkuntza hobeto ikasi ahal izateko. Sustatuko da bikoteak jatorri ezberdinekoak izatea, ez soilik hizkuntzak ikasi eta praktikatzeko, baita harremanak eta elkar ezagutza bultzatzeko ere. Topaketa horiek izaera informalekoak dira, eta talde txikitik egindako aisialdi-jarduerekin osa daitezke
<b>HELBURUA</b>	Bi hizkuntza ofizialak ikastea erraztea Eibartarren artean harrera eta elkarbizitza bultzatzea
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Hizkuntza-bikoteen programa bat landu izana Herriko bitarteko eta kanalen bidez egindako zabalkundea
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Zenbat bikote sortu diren Bikoteek programatutako jardueren % 70ean gutxienez parte hartzea
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa Euskararen pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	· 2018 · 2019 · 2020 · 2021 · 2022



2. EGITURAREN DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.3. Hitzaldiak eta topaketak egitea, Eibarko eta euskal gizarteko usadio eta ohituretan oinarrituak (ohiturak, kultur ereduak, kodeak, konpromisoak...)</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarren bizi diren migratzaileak
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Horrekin atzeritar jatorriko herritarrei tresnak eman nahi zaizkie, Eibarko gizartean erabat integratzeko. Tailerrak modulutan egingo dira; hainbat gaitan oinarritutako edukiak landuko dira, lagungarri izango zaizkienak kode soziokultural zein soziorabial batzuk ulertzeko</p> <p>Ordutegiak eta edukiak Eibarko Udaleko immigrazio eta aniztasun sailean zehaztuko dira, eragile sozial, kultural eta laborelek haien premien aurrean antzemandako eskaerekin bat etorritik</p>
<b>HELBURUA</b>	Atzeritar jatorriko biztanleen integrazio-prozesuak erraztea
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	<p>Tailarren programazioa lantzea</p> <p>Tailarren eta topaketen zabalkundea egitea</p>
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	<p>Zenbat tailer jarri diren martxan</p> <p>Zenbat jendek hartu duen parte</p> <p>Zerbitzuaren erabiltzaileek bete duten asetasun-inkesta</p>
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>

2. EGITURAREN DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.4. Enpleguaren eta formazioaren arduradunak diren entitateekin sarean lan egitea, migratzaileen insertzio soziolaboralerako prozesuak ezartzeko</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Enpleguarekin eta enplegurako formazioarekin lotutako sail eta entitateak Eibarko Udaleko Immigrazio saileko pertsonal teknikoa
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Sustatu nahi da enplegu-dispositiboen eta atzerritarren insertzio soziolaboralean lan egiten duten erakundeen artean erlazio estuago bat ezartzea; Eibarko Udalak ere parte hartzen du</p> <p>Horrekin, populazio honen inklusio soziolaboral erabatekorako, komunikazio-bideak zabaltzeko ez ezik, dispositibo bakoitzak dituen baliabideak aprobetxatu ere egiten dira, bakoitzaren eginkizunak ez bikoizteko</p> <p>Asmoa da baliabide-gida bat izatea, arreta- eta deribazio-protokoloak ezarri ahal izateko</p> <p>Talde sozial ezberdinen (emakumeak, gazteak, klase sozialak, nazionalitateak, ordutegiak...) espezifikotasunei egingo zaie kasu, parte-hartze eraginkorra sustatzeko</p> <p>Gizartekintzako kultur aniztasunaren unitateak informazio eguneratua izango du herriko lan-merkatuaren premiei buruz, eta migratzaileen lan-indarraren (gabeziak, indarguneak) eta estratu sozialen ezaugarriei buruz; informazio horretan oinarriturik, proposamen-lanak egingo ditu udalerriko enplegu-formazioaren honako prozesu hauetan: arreta eta bitartekaritza, deribazioa, diseinua eta sustapena</p>
<b>HELBURUA</b>	Komunikazio-kanal eraginkorrak sortzea, atzerritarren integrazio soziolaborala lortzeko
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Koordinazio-bilera kopurua Deribazio-protokolo bat sortzea
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Ondo atera diren ibilbide soziolaboralen kasuak
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa Enpleguaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> </ul>

2. EGITURAREN DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.5. Herrian Immigrazio Mahaia bat sortzea, arlo horretan parte hartzen duten eragile guztien parte hartzea eta koordinazioa bermatuko duena</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Migrazio-alorreko entitateak, entitate kolaboratzaileak, udaleko pertsonal teknikoa
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Immigrazio Mahaia espazio egokiena da herrian bizi diren atzerritar jatorriko biztanleekin zerikusia duten gaiak prozesu horretan esku hartzen duten guztiekin partekatzeke</p> <p>Mahaia entitate sozial ezberdineko ordezkariak (izan etorkinen entitateak, etorkinei laguntzekoak edo beste edozein esparrutakoak) eta udal administrazioak ordezkariak osatuko dute. Kontuan hartuko da topaketa horietara, aztertu behar den gaiaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiko edota Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk gonbidatzea</p> <p>Bileren maiztasuna ezarriko da behin Immigrazio Mahaia osatu eta epe motz, ertain eta luzerako helburuak finkatu ondoren</p>
<b>HELBURUA</b>	<p>Udalerrian parte hartze soziala sustatzea</p> <p>Immigrazio-arloko entitateen eta erakundeen arteko elkarrizketa sustatzea</p>
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	<p>Zenbat eragile konbokatuta edo deitu diren</p> <p>Zenbat bilera deitu diren</p> <p>Bileren helburuen programazioa</p>
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	<p>Immigrazio Mahaia bat sortzea, urtean gutxienez 3 bilera eginez</p> <p>Immigrazio Mahaia urtean gutxienez jarduera bat martxan jartzea</p> <p>Immigrazio-esparruko entitateen % 70ek gutxienez parte hartzea</p>
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>

2. EGITURAREN DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.6. Immigratzaileentzako baliabideen gida eta informazio interesgarria aldian behin eguneratzea eta webgunean sartzea</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarren bizi diren migratzaileak
<b>DESKRIBAPENA</b>	Eibarko Udaleko baliabide-gidaren zabalkundea egitea, eta udalerrria ezagutzeko behar diren arlo guztiak aldian behin eguneratuta edukitzea, atzerritar jatorriko herritarren integrazioa lortzeko xedez
<b>HELBURUA</b>	Eguneratutako baliabide-gida bat izatea eta zabaltzea
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Gidaren egitura eta edukiak berrikustea Hiru hiletik behin gidaren edukiak eguneratzea
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Eguneratutako baliabide-gida
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa Udal webgunearen eta RR.SSen pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>

2. EGITURAREN DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.7. Herriko beste entitate batzuekin lankidetzaren indartzea (Lanbide, Osakidetza, elkarteak,...)</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Migrazio-alorreko entitateak, entitate kolaboratzaileak, udaleko immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>DESKRIBAPENA</b>	Immigrazioarekin, neurri handiagoan edo txikiagoan, zerikusia duten entitateekiko lotura bultzatzea, haien errealitatea ezagutzeko eta komunikazio- eta kolaborazio-bideak errazteko, entitate-sarea kohesionatuago egon dadin Horrekin komunikazio- eta lankidetzaren kanalak erraztu nahi dira, ez bakarrik Udalak haiekin dituen kanalak, baita etorkinen entitateen artekoak, haiei laguntzekoak eta herrian dauden beste entitateekikoak ere
<b>HELBURUA</b>	Entitateen sare indartsu eta trinko bat eratzea, kultur aniztasunaren eta haren premien inguruan Entitateen eta Eibarko Udalaren arteko elkarrikeria erraztea, lankidetzaren espazioak eta estrategia-itunak sustatzeko
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Koordinazio-proiektuak lantzea Koordinazio-bilerak Eskuragarri dauden baliabideen gidak
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Jarduera-protokoloen eta bileren urteroko txostena
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	· 2018 · 2019 · 2020 · 2021 · 2022

2. EGITURAREN DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.8. Immigrazio-arloko proiektuetan genero-ikuspegia sartzea, eta kultur aniztasuna indartzea genero-ikuspegia sartuta daukaten proiektuetan</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Migrazio-arloko entitateak eta beste entitate sozial batzuk ere
<b>DESKRIBAPENA</b>	Sustatuko da Eibarko Udaleko immigrazio sailaren diru-laguntzen inguruko ildoetan, proiektu horiek planteatzeko baldintzak genero-ikuspegi batetik sartzea Era berean, genero-ikuspegi batetik diseinatutako proiektuek izan dezatela kultur aniztasuna lan-ildotzat
<b>HELBURUA</b>	Eibarko Udalak emandako diru-laguntzetan genero-ikuspegia txertatzea zeharkako ildotzat, bai eta kultur aniztasuna sartzea genero-ikuspegitik planteatzen diren diru-laguntzetan
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Immigrazio arloko diru-laguntzen ildoan, proiektua genero-ikuspegiarekin garatzeko baldintza txertatzea Diru-laguntzak emateko proiektuetan, genero-ikuspegia baloratzeko puntuazioa beste irizpide batzuen gainetik jartzea Berdintasun saileko diru-laguntzen ildoan, proiektua immigrazio-ikuspegiarekin garatzeko baldintza txertatzea Genero-ikuspegiko proiektuetan, kultur aniztasuna baloratzeko puntuazioa beste irizpide batzuen gainetik jartzea
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Udalak emandako diru-laguntzak, bi ikuspegiak jasoko dituztenak
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa Berdintasunaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	· 2018 · 2019 · 2020 · 2021 · 2022

2. EGITURAREN DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.9. Heziketa-komunitateari (irakasleak, administrariak, Guraso elkarteak) sentsibilizazio-formazioa ematea kultur aniztasunaren eta elkarbizitzaren alorrean</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Heziketa-komunitatea
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Heziketa-komunitatea osatzen duten familien topaguneak sustatuko dira partekatutako jardueretan, pertsonen arteko harremanak, elkar ezagutza eta esperientzien trukea sortzeko, eta talde bereko kide izatearen sentimendua bultzatzeko</p> <p>Bultzatuko da atzerriko familiek heziketa-komunitatean gehiago parte hartzea (ordezkaritza-organoak, komunikazio-kanalak, eskolaz kanpoko jarduerak, ordutegiz kanpoko bilera, gurasoen eskolak)</p> <p>Asmoa da heziketa-komunitateko eragileentzako formazio-tailer batzuk sortzea, kultur aniztasunaren eta elkarbizitzaren inguruan sentsibilizatzeko. Kontua da formazio-moduak egokitzea xede-publikoaren arabera, izan ikasleak, izan Guraso Elkartea, izan irakasleak edo zentroetako administrariak</p> <p>Eibarko Udalak oinarrizko programa bat proposatu eta herriko ikastetxe guztiei eskainiko die, publiko zein pribatuei, aukera emanez ikastetxearen errealitatearen arabera aldaketak egiteko</p> <p>Gogoeta gune bat eratuko da zuzendaritza-taldean eta herriko administrazioaren artean, elkarlanean Plana ikastetxeetan martxan jartzeko</p> <p>Gogoeta gune bat eratuko da zuzendaritza-taldean eta herriko administrazioaren artean, elkarlanean Plana ikastetxeetan martxan jartzeko, eta eskola-segregazioaren fenomenoaren diagnostikatu eta lantzeko</p>
<b>HELBURUA</b>	Kultur aniztasunari buruzko sentsibilizazio-formazioa sustatzea eta heziketa-komunitateko eragileen arteko elkarbizitza indartzea
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	<p>Formazio-programa oinarrizko bat sortzea</p> <p>Programa ikastetxeen artean zabaltzea</p> <p>Zenbat ikastetxe dagoen interesatuta, formazio bat gutxienez heziketa-komunitateko taldeetako batean martxan jartzeko</p> <p>Topo egiteko guneak sortzea</p> <p>Zenbat ikastetxe atxikitu diren topaguneetara</p> <p>Adostutako topaguneen diseinua</p> <p>Parte hartzea sustatzeko adostutako jarduerak</p>
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	<p>Heziketa-zentroetan egindako formazioak</p> <p>Zenbat pertsonak eta entitatek parte hartu duten formazio-saioretan</p> <p>Parte hartzaileek bete dituzten asetasun-inkestak</p> <p>Zenbat pertsonak parte hartu duten topaguneetan</p>
<b>ARDURADUNA</b>	<p>Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa</p> <p>Herriko heziketa-zentroetako irakasleak</p> <p>Guraso elkarteak</p>
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> </ul>

2. EGITURAREN DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.10. Ikasle etorkinen euskararen ezagutza indartzea, eskolaz kanpoko ordutegian laguntza-saioak emanez</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarren bizi diren migratzaileak
<b>DESKRIBAPENA</b>	Eskola-ordutegiz kanpoko euskara-klaseak martxan jartzea, Hizkuntza hobeto ezagutu eta erabilera indartu behar duten atzerritar jatorriko ikasleentzat. Haien hizkuntza-gaitasuna hobetzeko eskola-saioak dira, eta ez hainbeste hezkuntza formalaren indargarri
<b>HELBURUA</b>	Atzerritar jatorriko ikasleei euskarazko baliabide gehiago ematea
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Hizkuntza-errefortzu programa bat lantzea Errefortzu-zerbitzuaren zabalkundea egitea heziketa-zentroen eta atzerritar jatorriko familien artean
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Zenbat pertsonak parte hartu duten proposatutako ikastaroetan % 80ko asistentzia klaseetara
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa Hezkuntzaren eta euskararen pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>



<b>2. EGITURAREN DIMENTSIOA</b>	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.11. Elkarbizitza eta Aniztasun Plana sozializatzeko prozesuak ezartzea herritarren eta entitate sozialen artean</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Entitate sozialak Eibarko herritarrak
<b>DESKRIBAPENA</b>	Asmoa da Elkarbizitza eta Aniztasun Plana aurkeztea herritarren eta herrian parte hartzen duten eragile sozialen artean  Horretarako, hainbat modutara proposatzen da hura sozializatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>· Herritarrekin topaketa irekiak sortzea, Planaren misioa, bisioa eta helburuak eta haren garapena azaltzeko</li> <li>· Entitate sozialek parte hartzen duten foroetara hurbiltzea (Kultur artek Mahaia, esaterako) Plan berria aurkezteko</li> <li>· Zabalkundea egitea hainbat komunikabideren bidez (tokiko prentsa, Udalaren webgunea, RR.SSak, etab.)</li> </ul>
<b>HELBURUA</b>	Eibarko Udalak elkarbizitzarekin eta diskriminazioaren aurkako borrokarekin duen konpromisoa ikustaraztea, eta gonbita egitea herritarrei eta entitate sozialei proposatutako jardueretan parte hartzera
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Planean jasotzen diren eragileen parte hartze aktiboa izan duten jarduerakopurua
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Zenbat aldiz aurkeztu den Plana Zenbat entitatek parte hartu duten aurkezpenetan
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>

2. EGITURAREN DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.12. Atzerritar jatorriko emakumeek parte har dezaten espazio egokiak sortzea, bai eta kulturen arteko topaguneak ere, kultur eta/edo hizkuntza berezitasunak kontuan hartuz</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarren bizi diren atzerritar jatorriko emakumeak
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Herrian bizi diren atzerritar jatorriko emakumeen partaidetza sustatzea, haien sare soziala zabal dezaten, ez bakarrik beste emakume etorkin batzuekin, baita gainerako eibartarrekin ere. Era berean, haien parte hartzeak berekin dakar espazioak sortzea topaketa horiek sustatzeko</p> <p>Gara daitezkeen jardueren artean, proposatzen da topaketa-jarduera bat egitea herriko emakumeen artean</p>
<b>HELBURUA</b>	Atzerritar jatorriko emakumeen integrazio erabatekoa lortzea, espazio informaletan parte hartuz
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	<p>Udaleko immigrazio eta aniztasun sailaren laguntza, atzerritar jatorriko emakumeei zuzendutako jarduerak sustatzeko lanean</p> <p>Informazioa eta eskuratu daitezkeen baliabideak sortzea</p> <p>Emakumeak inplikaturik dauden jardueretan parte hartzea diru-laguntzen bidez ekonomikoki laguntzea</p> <p>Elkarrekin topo egiteko espazioak lokalizatzea eta erraztea</p> <p>Jardunaldi bat antolatzea emakumeen topaketarako</p>
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	<p>Atzerritar jatorriko emakumeen partaidetza aktiboa</p> <p>Jardunaldira joan direnen kopurua</p>
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>

2. EGITURAREN DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.13. Gaztelaniazko irakaskuntzako dispositiboak sortzea bultzatzea, etorkinen integratzeko hizkuntzaren premiaren inguruko eskariei erantzuteko</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarren bizi diren migratzaileak
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Xedea da laguntza ematea egun gaztelaniaren irakaskuntzaz arduratzen diren dispositiboak (Helduen Hezkuntza, entitate sozialak, etab.), hizkuntza ikasi nahi duen edonorengana iritsi ahal izateko eta kolektiboaren benetako premietara egokitzeko. Horrekin etorkinen insertzio soziolaborala sustatzen dugu, gaztelania haien eginkizunetan jarduteko eta komunikatzeko beharrezkoa den espazioetan</p> <p>Pertsona horiek gaztelania ikasteko dituzten premiak eragile soziolaboral ezberdinen artean ebaluatuko dira, eta dauden dispositiboak errefortzuzko programak diseinatuko zaizkie</p>
<b>HELBURUA</b>	Atzerritar jatorriko pertsonen insertzio soziolaborala hobetzea, gaztelaniaren ezagutzaren bidez
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Gaztelania-eskolak eskaintzen dituzten bitartekoekin koordinatzea, biztanleriak dituen premiak optimizatzeke
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Matrikulazioak eta % 80ko asistentzia izatea
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>

2. EGITURAREN DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.14. Migrazioen arloko entitateei eta laguntzako elkarteei zuzendutako elkarteei indartzeko eta parte hartzeko programa bultzatzea eta sendotzea</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Immigrazio-alarrean lan egiten duten Eibarko elkarteei
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Migrazioen esparruan lan egiten duten udalerriko elkarteei lokalizatzea</p> <p>Haien parte hartzea bermatzea Kulturarteko Mahaian</p> <p>Elkarteei indartzeko laguntzaren ildoak sustatzea, programak garatzeko eta haien jarraipena bermatzeko eta indartzeko</p> <p>Bitarteko egokiak jartzea uneoro elkarrean egoeretara eta interesetara egokitzeko eta haien barne-prozesuak zaintzeko</p>
<b>HELBURUA</b>	<p>Immigrazio-esparruarekin lotutako entitateen antolaketa indartzen laguntzea, haien ikusgaitasuna eta partaidetza soziala errazteko</p> <p>Immigrazio-esparruko entitateen eta tokiko administrazioaren arteko elkarrekin sustatzea, estrategia eta planteamendu antzekoak bultzatzeko elkarbizitzaren eta aniztasunaren arloan</p>
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	<p>Prozesuari buruzko urteroko txostena</p> <p>Entitateekiko urteroko ebaluazioa</p>
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	<p>Kulturarteko Mahaian parte hartzen duten elkarrekin kopurua</p> <p>Zenbat aholkularitza-saio egin diren elkarrekin</p> <p>Aholkularitza-saioen ebaluazio-inkesta</p>
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> </ul>

2. EGITURAREN DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.15. Kulturarteko Mahaiko entitateen artean Planaren ildoarekin batera datozen jarduerak egitea sustatzea; Udalak lagunduak eta/edo diruz lagunduak</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Kulturarteko Mahaiaren elkarteak, eta lankidetzan aritzen diren herriko beste elkarte batzuk
<b>DESKRIBAPENA</b>	Plana sozializatzea Mahaiko entitateekin Formazioan parte hartzea zurrumurruen aurkako ildoan Gizartekintza saileko diru-laguntzen oinarrietan, tratu-berdintasunaren, diskriminazio ezaren eta kulturarteko elkarbizitzaren aldeko lan-ildo hau sartzea Apustu hau berariaz sartzea Mahaiaren urteroko jarduera batean Apustu hau berariaz sartzea elkarteen jardueraren batean
<b>HELBURUA</b>	Migrazioen esparruko elkarte-ehuna aktibatzea eta haien lana ikustaraztea eta baita elkarbizitzaren aldeko ekarpena ere
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Elkarteek eta/edo mahaiak egindako jarduerak, Planaren ildoarekin bat datozenak Diru-laguntzen oinarrietan sartzea tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren aldeko ildoak
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Formazioan parte hartu duten entitateen kopurua
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa Kulturarteko Mahaiaren entitateak
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>

<b>3. PERTSONEN ARTEKO DIMENTSIOA</b>	
<b>EKINTZA</b>	<b>3.1. Bizilagunak programak herrian duen inpaktua antolatzea eta zabaltzea</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarko herritarrak Kulturarteko Mahaiko elkarteak
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Elkarteak inplikatzera zabalkundearen eta parte hartzaileak erakartzean; Bizilagunak- en aurreko edizioetako parte hartzaileak ere inplikatzera</p> <p>Zabalkundea egitea kirolarekin lotutako herriko gazte-taldeen, elkarten eta taldeen artean, eta baita detektatzen diren beste talde batzuen artean ere</p> <p>Programa honek Planaren helburuekin duen lotura esplizitu egitea, eta interes komun batekin konprometitutako pertsona gisa batzen gaituzten motibazioak eta espektatibak adieraztea eta jasotzea (parte hartzaileei ematen zaien diplomaren bidez eta bazkarietako solasaldien bidez)</p> <p>UPV/EHurekin lankidetzan aritzea Gizarte Heziketako edota Gizarte Laneko ikasleek bazkarietan dinamizatzaile gisa parte har dezaten</p>
<b>HELBURUA</b>	<p>Bertako eta atzerriko pertsonen eta familien artean ezagutza pertsonalerako espazio bat erraztea, aurreiritziak eta estereotipoak hausten laguntzeko eta loturak eta sentsibilitatea sortzen joateko kulturarteko elkarbizitza-arloan</p> <p>Lan-ildo honetan parte hartzeko interesa duten pertsonak identifikatzea</p> <p>Unibertsitatearekin harremanetan jartzea, Gizarte Heziketako edota Gizarte Laneko etorkizuneko profesionalak aniztasunaren arloan, kulturartekotasunaren arloan, etab. sentsibilizatzeko; halaber, programa aberastea komunitatearen garapenaren esparrutik</p>
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	<p>Bizilagunak programaren zabalkundea</p> <p>Prestatzeko eta koordinatzeko bilerak</p> <p>Ekimenaren kudeaketa</p>
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	<p>Programan parte hartzen duten familia-unitate eta pertsona kopurua</p> <p>Parte hartzaileek bete dituzten asetasun- eta inplikazio-inkestak</p>
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>

<b>3. PERTSONEN ARTEKO DIMENTSIOA</b>	
<b>EKINTZA</b>	<b>3.2. Beste sail/zerbitzu/entitate batzuekin batera herritarrei zuzendutako ekintzak antolatzea, atzerriko immigrazioaren aurrean dauden estereotipo negatibo eta faltsuen aurka egiteko</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarko herritarrak
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Herriko espazio publikoetan ekintzak egitea, non zurrumurrulogiarekin, kultur aniztasunarekin... lotutako gaiak azalduko diren</p> <p>Arrazismoaren aurkako sentsibilizazio sozialaren arloan estrategia berritzaileak sartuko dira, kanpotik etorritako edo atzeritar jatorriko pertsonen buruzko diskurtso sozialei aurre egiteko; esaterako, teknologia berriak erabiltzea (Internet, memeak, irratia...), edo umorea eta ironia erabiltzea zabalduko diren mezu eta edukietan</p>
<b>HELBURUA</b>	<p>Eibarko bizilagunen artean, zurrumurruen aurkako strategiaren ezagutza areagotzea</p> <p>Eibarko herritarrak kontzientziaztea jatorri kultural ezberdinen artean elkarbizitza hobetzeko premiaz</p>
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Urtero, gutxienez kaleko ekintza bat egitea
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Egindako ekimenaren inpaktua tokiko komunikabideetan ( <i>pressclipping</i> ). Laurtekoa
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>

3. PERTSONEN ARTEKO DIMENTSIOA	
<b>EKINTZA</b>	<b>3.3. Zurrumurruen aurkako estrategiarekin eta Elkarbizitzaren Planarekin bat datozen pertsona ezagunen atxikipena lortzea (ahal dela herriarekin lotura duten pertsonak)</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarko herritarrak
<b>DESKRIBAPENA</b>	Herriko pertsona ezagunen lankidetzatza lortzea, edo beste edozein pertsona publikorena, zurrumurruen aurkako estrategiarekin bat egin dezan Haren testigantza –ikus-entzunezko euskarri batean grabatua ondoren zabalkundea egiteko– oso material baliagarria da ezagutarazteko Eibarren elkarbizitzaren alde egiten ari den lana, eta zurrumurruen aurkako sarean inplikaturako kideen babesa eta aitortpena
<b>HELBURUA</b>	Herrian zurrumurruen aurkako estrategia ikusgai jartzea Eibarko bizilagunen artean, zurrumurruen aurkako strategiaren ezagutza areagotzea
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Zurrumurruen aurkako estrategia babesten duten pertsonaia publikoak lokalizatzea eta aukeratzea  Urtean gutxienez pertsonaia publiko baten atxikipena lortzea  Kanpaina babesteko strategiarekin bat datorren pertsonaia zenbat aldiz aipatu duen gaia bere lanbidean ari dela jendaurrean egiten duen agerraldiren batean
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Zenbat aldiz erreproduzitzen den bideoa sare sozial ohikoetan (Youtube, Facebook, Twitter)  Egindako ekimenaren inpaktua tokiko komunikabideetan ( <i>pressclipping</i> ). Laurtekoa
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	· 2018 · 2019 · 2020 · 2021 · 2022



<b>3. PERTSONEN ARTEKO DIMENTSIOA</b>	
<b>EKINTZA</b>	<b>3.4. Herriko komunikabideetan herrian finkatuta dauden etorkinen bizi-ibilbideak ikusgai jartzea</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Tokiko komunikabideak
<b>DESKRIBAPENA</b>	Tokiko komunikabideen lankidetzaz izatea, jada Eibarren sustraituta dauden etorkin jatorriko pertsonen bizi-ibilbidea ikusgai jartzeko
<b>HELBURUA</b>	Eibarren sustraitutako etorkin jatorriko pertsonen bizi-ibilbideak ikusgai jartzea, estereotipoei eta komunikabideetan proiektatutako irudi negatiboari aurre egiteko
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Herriko egunkarietan edota irratsaioetan etorkin-jatorriko pertsonen esperientzia arrakastatsuak azaltzen dituzten argitalpen kopurua
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Egindako ekimenaren inpaktua tokiko komunikabideetan ( <i>pressclipping</i> )
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>

<b>3. PERTSONEN ARTEKO DIMENTSIOA</b>	
<b>EKINTZA</b>	<b>3.5. Egun dauden kulturen arteko topaguneak sortzea baloratzea</b>
<b>XEDE-TALDEA</b>	Eibarko elkarte-ehuna osatzen duten pertsonak Eibarko herritarrak
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Bultzatu nahi da herriko entitate sozialek espazio bat izatea, elkarrekin jarduera partekatuak egin ahal izateko udalak lagatako espazioetan; halaber, sustatu nahi da ordutegien aldetik malgutasun bat izatea entitate horiek egin ditzaketan eskaeren aurrean</p> <p>Bestalde, immigrazio saila lan hori erraztu dezakeen bitarteko bat izan daiteke sor daitezkeen jarduera edo topaketetan, Planean planteatutako ildo batzuetan oinarrituz. Espazio horiek antolatzea udalaren lana da, eta behin zerbitzua martxan jarri ondoren zehaztuko da</p>
<b>HELBURUA</b>	Kultura guztien arteko hurbilketa eta topaketa sustatzea
<b>PROZESUAREN EBALUAZIOA</b>	Espazioak programatzea Interesa duten entitate-kopurua
<b>EMAITZEN EBALUAZIOA</b>	Programatutako jardueren kopurua Gutxienez lau topaketa sortzea kultura desberdinen arteko entitateen artean
<b>ARDURADUNA</b>	Immigrazio eta aniztasun sailaren pertsonal teknikoa
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2018</li> <li>· 2019</li> <li>· 2020</li> <li>· 2021</li> <li>· 2022</li> </ul>



